



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

**JAULKITAKO FAKTUREN FITXATEGIAK
KONTSULTATZEA ETA DESKARGATZEA
GIDA AZKARRA**



AURKIBIDEA

1. FUNTZIONALITATE BERRIEN LABURPENA	3
2. INFORMAZIOA ESKURATZEKO URRATSAK	4
2.1. EGINDAKO FAKTUREN KONTSULTATIK ZERRENDAK LORTZEA	5
2.2. BEZ ZERRENDAREN DESKARGA HANDITUA	6
3. FITXATEGIEN EDUKIA	7
3.1. “LABURPEN ZERRENDA” DESKARGATZEA.....	7
3.2. “BEZARAKO ZERRENDA” DESKARGATZEA:	8
3.3. “ERROREDUN FAKTUREN ZERRENDA” DESKARGATZEA.....	15
4. ERANSKINAK.....	16
I ERANSKINA: LABURPEN ZERRENDA.....	16
II. ERANSKINA: BEZARAKO ZERRENDA	17



JAULKITAKO FAKTUREN FITXATEGIAK KONTSULTATZEA ETA DESKARGATZEA GIDA AZKARRA

1. FUNTZIONALITATE BERRIEN LABURPENA

TicketBAI Ataria atariko **FAKTUREN KONTSULTA** aplikazioan honako utilitate hauek sartu dira.

"Fakturak" atalean:

1. **"Laburpen zerrenda"**. Fitxategi bat sortzen du¹, Foru Ogasunean jaso diren fitxategiak kudeatu ahal izateko oinarrizko informazioa, egon daitezkeen akatsak eta fakturak balio gabetu edo zuzendu egin diren jasotzen duena.
2. **"BEZarako zerrenda"**. Fitxategi bat sortzen du¹, BEZaren aitortpenak egiteko informazio erabilgarria jasotzen duena, formatu berezian, zerga garrantzia duten eragiketak bistaratzea errazten duena.
3. **"BEZarako zerrenda deskarga azkarra"**. Fitxategi bat sortzen du¹, BEZerako zerrenda berdina, formaturik gabe eta azkar lortzen dena, deskarga denbora murrizten duena, fakturazio bolumena handia den kasuetan.

"BEZ zerrendaren deskarga handitua" atalean:

4. **"BEZ zerrendaren deskarga handitua"**. Fitxategi bat sortzen du¹, BEZ zerrendaren informazio berdinarekin, formaturik gabe eta eskaera bakoitzeko 1.000 fakturen mugarik gabe, deskarga denbora murrizten duena, atez ere fakturazio bolumena handia den kasuetan.

"Fakturak" atalean ere:

5. **"Erroredun fakturen zerrenda"**. Fitxategi bat sortzen du¹, akatsak dituzten jasotako fitxategiak jasotzen dituena.

Azken zerrenda hori bereziki garrantzitsua da, informazio eguneratua ematen baitu akatsak dituzten fitxategiekin egin beharreko ekintzaren inguruan:

- a. Ordezteko faktura zuzentzaile bat egitea².
- b. ZUZENDU fitxategi bat bidaliz aldatzea.

¹ ".xlsx" formatuko fitxategia

² BEZ aitortpenerako datuak zuzenak izateko, akastun faktura bat faktura zuzentzaile batek zuzentzen duenean, ordezteko modalitatea erabili behar da, eta "xml" ko informazioan zuzendutako oinarria eta kuotak Ora adierazi behar dira, nahiz eta fakturaren dokumentuan zuzendutako oinarria eta kuotak adierazi.


Akastun fakturen informazioak aukera ematen du hauek bereizteko:

- Akatsak zituzten fakturak, haiekin hau egin denean:
 - o Baliogabetu
 - o Faktura zuzentzaile baten bidez zuzendu
- Akatsak dituzten fakturak, oraindik zergadunak horiekin ekintzarik egin ez duenean


Zergadunaren erantzukizuna da igorritako fakturretan jasanarazitako kuotak behar bezala aitortzea, "xml" fitxategia atzera bota bada edo zuzentzeke dauden akatsak baditu ere.

2. INFORMAZIOA ESKURATZEKO URRATSAK

Behar bezala identifikatu ondoren, sar zaitez **Gipuzkoatariaren** barruan **TicketBAI Ataria** atarira.



TicketBAI Ataria atariaren barruan, **TicketBAI fakturen kontsulta** atala topatuko duzu.





Sartzeko hasierako pantailan, besteak beste, jaulkitako fakturei, erroreak dituzten fakturei eta atzera botatako fakturei buruzko datuen laburpen bat erakusten da, baita zerrendak deskargatzeko **gehieneko denbora- tartea** ere, hiruhileko batean egindako faktura-kopuruaren arabera ezartzen dena.

Fakturen kopurua / Hiruhilekoa	Kontsultarako/ Deskargarako gehiengo denbora- tartea
< 1.000	Urte bat
1.000 – 5.000	Hiruhileko bat
5.000 – 50.000	Hilabete bat
> 50.000	Egun bat

2.1. EGINDAKO FAKTUREN KONTSULTATIK ZERRENDAK LORTZEA

“Jaulkitako fakturak” fitxaren barruan, kontsulta- pantailak aukera ematen dizu:

- Erregistratu diren azken fakturen zerrenda ikusteko (“TicketBAIn erregistratutako azken fakturak”).
- Erroreak dituzten azken fakturen zerrenda ikusteko (“TicketBAIn erregistratutako azken fakturak erroreekin”).
- Goian adierazitako **gehieneko denbora tartearen**, jaulkipen data edo eragiketa dataren arabera bilaketa.
- Fakturaren seriea edo zenbakiaren arabera bilaketa zehatzak egitea.

The screenshot shows the 'FAKTUREN KONTSULTA' (Invoice Consultation) page. At the top, there are logos for 'SEDE ELECTRÓNICA', 'Gipuzkoako Foru Aldundia', and 'Europar Batasunak'. The page has a blue header with navigation links like 'Fakturak' and 'BEZ zerrendaren deskarga handitua'. Below the header, there are tabs for 'LABURPENA', 'BIDALITAKO FAKTURAK', and 'ERROREEN KONTSULTA'. Two buttons are visible: 'TICKETBAIN ERREGISTRATUTAKO AZKEN FAKTURAK' (highlighted in blue) and 'TICKETBAIN ERREGISTRATUTAKO AZKEN FAKTURAK ERROREEKIN' (highlighted in orange). The main content area is titled 'TicketBAIn erregistratutako fakturak bilatu' and contains a search form with fields for 'Jaulkitzailearen IFZ*', 'Kontsultetarako eta zerrendetarako gehiengo epea' (set to 'Urte 1'), 'Aldi mota' (radio buttons for 'Guztiak', 'Urtekoa', 'Hilerokoa', 'Hiruhilabetekoa'), 'Ekitaldia', 'Aldia', 'Jaulkipen-data' (with 'Noiztik' and calendar icons), 'Noiz arte', 'Eragiketaren data' (with 'Noiztik' and calendar icons), 'Faktura-seriea', and 'Faktura-zenbakia'. A message box at the top says 'Aintzat hartu gabeko gailuetatik jasotako fakturak daude. Gailuen erroldan sartu BEHAR DUZU.'



Erantzun fitxan, informazioa deskargatzeko, lau aukera hauek daude (1. Puntuan laburtu direnak). Horien edukia hurrengo atalean garatuko da

- Laburpen zerrenda
- BEZarako zerrenda: formatu berezian
- Erroredun fakturen zerrenda
- BEZ zerrenda deskarga azkarra: BEZarako zerrenda berdina, formaturik gabe, azkar lortzen dena, deskarga denbora murrizten duena, batez ere, fakturazio bolumena handia denean.

BEZarako zerrendaren gida

Laburpen zerrenda BEZarako zerrenda Erroredun fakturen zerrenda BEZ Zerrenda Deskarga Azkarra

Aurkitu:

Lau aukeretako bakoitzean (*Laburpen zerrenda*, *BEZarako zerrenda* eta *Erroredun fakturen zerrenda* eta *BEZ Zerrenda Deskarga Azkarra*) fitxategi bat deskargatuko da³, zure kalkulu tresnarekin kudeatu ahalko duzuna.

Oharra: deskarga bakoitzeko gehienez ere 1.000 faktura eskuratuko dira. Informazioa 1.000ko bloketan deskarga daiteke, hainbat kalkulu orritan, eta horiek bateratu gero.

2.2. BEZ ZERRENDAREN DESKARGA HANDITUA

“**BEZ zerrendaren deskarga handitua**” ataletik:

- Fakturen kontsultako “*BEZarako zerrendaren*” informazio bera deskargatuko da, **CSV formatuan, eskaera bakoitzeko 1.000 fakturen mugarik gabe** Oso erabilgarria da fakturazio bolumena handia den kasuetan.
- Egun bakoitzeko LAU zerrenda eska daitezke.
- Sistemak sortutako azken 4 eskaerak gordeko ditu.
- BEZarako zerrenda TicketBAIra bidalitako fakturetatik sortzen da.
- CSV deskargatzeko gehieneko denbora- tarte urtekoa da.
- Ez da erabilgarri egongo egun bateko gehieneko denbora- tarte dutenentzat

SEDE ELECTRÓNICA | **FAKTUREN KONTSULTA** | 2024/04/08 15:32:56 | eu | es

Fakturak | **BEZ zerrendaren deskarga handitua** | Itzuli TicketBAI Alaria

BEZ ZERRENDAREN DESKARGA HANDITUA

Pantaila honetan, BEZarako zerrenda lortzen da, formaturik gabe eta eskaera bakoitzeko 1.000 fakturako mugarik gabe. Oso erabilgarria da fakturazio-bolumena handia den kasuetan.

³ “.xlsx” formatuko fitxategia


3. FITXATEGIEN EDUKIA

3.1. “LABURPEN ZERRENDA” DESKARGATZEA

- Faktura bakoitza lerro bakarrean irudikatuko da; bertan adieraziko da I. eranskinean zerrendatutako informazioa.

▪ JATORRIA

- Eremuan **ALTA** jartzen badu, bidalitako jatorrizko fitxategia da.
- **ZUZENDU Aldaketa** agertzeak esan nahi du eguneratu egin dela jatorrizko fitxategiaren informazioa, ZUZENDU Aldaketa fitxategian oinarrituta, eta azken bertsioa ageri dela. Fakturaren fitxaren *Historia* atalean historia osoa dago eskura.



XEHETASUNA		HISTORIALA		Fakturak								
Jatorria	Erroreak	Ballogabetua/Zuzendua	Fakturaren jaulkipen data	Fakturaren jaulkipen ordua	Mota	Hartzailea (k)	Zerga-oinarria / Zenbaketakoa	BEZ Kuota	Faktura guztira	Zuzendutako zenbatekoa	Ekintzak	
Alta	Ez	Aldatua	2023/01/25	13:37:35	R5 - S		55,00	11,55	66,55	0,50		
ZUZ-M	Ez		2023/01/25	13:37:35	RS - S		55,00	11,55	66,55	0,00		

1 -etik 2 -erako erregistroak erakusten, guztira 2 erregistro

Aurrekoa 1 Hurrengoa

- **ZUZENDU Konponketa** agertzeak esan nahi du fitxategia ZUZENDU Konponketa Zerbitzutik datorrela, eta hori jaso egingo zela jasotze balioztapenak gainditu ez dituelako atzera bota den fitxategi bat bidali ondoren.

▪ AKASTUN FAKTURAK

- “**ERROREAK**” zutabean “**Bai**” agertuko da jasotako fitxategiek akatsak badituzte.
- Akastun faktura bat ZUZENDU Aldaketa fitxategi batek aldatzen duenean eta akatsak edukitzeari uzten dionean, **JATORRIA** eremua



eguneratu egingo da, eta *ZUZENDU Aldaketa* ageriko da.
"ERROREAK" zutabeen "Ez" agertuko da.

▪ BALIOGABETUA/ ZUZENDUA

- Faktura bat baliogabetuz gero (*BALIOGABETU* fitxategi baten bidez), zuzenduz gero (faktura zuzentzaile batekin) edo ordezkatzuz gero "*Baliogabetua*", "*Zuzendua*" edo "*Ordezkatua*" hitza agertuko da fitxategiaren C zutabeen. Bestela, zutabea hutsik geldituko da.

▪ DATU EKONOMIKOAK

Besteak beste, honako datu hauek ageri dira:

- **Fakturaren guztira**: fakturaren guztizko zenbatekoa.
- **Zerga oinarria/Zenbatekoa**: zerga oinarri salbuetsi eta salbuetsi gabeen, subjektu pasiboa alderantzikatuta dutenen eta atxiki gabeen, fakturaren xehakapenetan jasotakoena, batura.
- **BEZaren kuotak**: fakturan jasotako BEZ kuoten batura.
- **Baliokidetasun Errekarguaren kuotak** (RE): fakturan jasotako baliokidetasun errekararen kuoten batura.
- **Zuzendutako zenbatekoa**: oinarri eta kuota zuzenduen batura, ordezteko faktura zuzentzaileetan.
- **Jasandako atxikipena**
- **Errore kodeak**: erroreei dagozkien kodeak adieraziko dira, puntu eta komaz bereizita.

3.2. "BEZARAKO ZERRENDA" DESKARGATZEA:

- Faktura bakoitzaren (seriearekin eta zenbakiarekin identifikatuta), II. eranskinaren taulan zehaztutako zerga informazioa adieraziko da.

▪ FAKTURA BATEK HAINBAT LERRO SOR DITZAKE:

- Faktura batek barruan hartzen baditu BEZ tasa edo baliokidetasun errekaru bat baino gehiagorekin zergapetutako eragiketak, edo hainbat eragiketa mota jasotzen baditu, lerro bat sortzen da zerga tasa eta/edo eragiketa mota bakoitzeko. Era berean, lerro bakoitzeko datu ekonomikoak zutabe bloke desberdinetan jasotzen dira, "**DATU EKONOMIKOAK**" atalean adierazitako irizpideei jarraituz.
 - Beraz, faktura batek lerro bat baino gehiago izan ditzake, eta lerro bakoitzari buruzko informazioa hainbat zutabetan agertu ahal izango da.
 - Bere identifikazioa errazte aldera, faktura bakoitzaren informazio komuna (*ekitaldia, epealdia, jatorria, egoera, erroreak, faktura mota, fakturaren identifikazioa, jaulkipen*



data, eragiketa data, hartzailearen identifikazioa, BEZ gakoak) faktura bereko lerro guztietan errepikatzen da.

- "Fakturaren guztizkoa", nahiz eta fakturako datu bakarra den, hainbat lerro dituzten fakturretan, azkenengoan bakarrik agertzen da.
- Faktura zuzentzaileetan (Rx) eta faktura sinplifikatuak ordezteko fakturretan (F3), "**Zuzendua/ Ordezkatua**" zutabearen (AG), zuzendutako/ ordezkaturako fakturen seriea eta zenbakia agertzen dira, igorpen-datarekin batera, hurrenez hurren.
- Ordezko faktura zuzentzaileen kasuan, zuzenduriko oinarriak eta kuotak beste lerro batean agertzen dira, eta lerro horri S0 balio berria esleitzen zaio "O" zutabearen, behar bezala identifikatzeko. Lerro honetako datu ekonomikoak "**Oinarri eta kuoten aldaketa**" blokeko zutabeetan jasoko dira, "DATU EKONOMIKOAK" atalean adierazten den bezala.
- Hondo zuria/grisa erabiltzen dira, txandaka, faktura baten eta bestearen lerroak bereizteko.

	A	B	C	D	E	F	G	H
1								
2	Ekitaldia	Aldi	Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Faktura m	Seriea	Zenbakia
3	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	1
4	2023	1	Alta	EZ		R1S	TB-2023-Z	1
5	2023	1	Alta	EZ		R1S	TB-2023-Z	1
6	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	2
7	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	2
8	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	3
9	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	3

■ EKITALDIA ETA ZERGALDIA:

Ekitaldia eta likidazio aldia **ERAGIKETA DATAN**⁴ oinarrituta kalkulatzen dira, salbuespen batzuk eginda. Izan ere, TicketBAI fitxategietan emandako informazioaren arabera, **JAULKIPEN DATARI** dagokion ekitaldia eta likidazio aldia esleitu da ondorengo kasuetan:


- R1, R2, R3 eta R5 motako faktura zuzentzaileak
- R4 motako faktura zuzentzaileak, hasierako batean jasanarazitako kuotak gutxitzea dakartenak
- Faktura osoak (F1) zein sinplifikatuak (F2), negatiboak
 - F1 edo F2 faktura bat negatiboa dela jotzen da *ZO, ZO salbuetsia, 7. artikuluari lotu gabeko zenbatekoa, edo Lokalizazio erregelengatik zergapetu gabeko zenbatekoa* eremuetan adierazitako zenbatekoa zerotik gorakoa ez denean.

⁴ Kutxa Irizpidearen arabide bereziari atxikitako zergadunen kasuan, ekitaldiaren eta zergaldiaren eremuek ez dute informaziorik izango, horiek kobrantzaren unearen datuaren mendean baitaude, eta informazio hori ez dago jasota zergadunak bidalitako TicketBAI fitxategietan.

Faktura zuzentzaileei eta faktura negatiboek esleitutako "Ekitaldia" eta "Epealdia" zutabeak orientagarriak dira. Zergadunaren erantzukizuna izango da likidazioaren ekitaldia eta epealdia zein diren ongi zehaztea.

■ JATORRIA

- Eremuan **ALTA** jartzen badu, bidalitako jatorrizko fitxategia da.
- **ZUZENDU Aldaketa** agertzeak esan nahi du eguneratu egin dela jatorrizko fitxategiaren informazioa, ZUZENDU Aldaketa fitxategian oinarrituta, eta azken bertsioa ageri dela. Fakturaren fitxaren *Historia* atalean historia osoa dago eskura.



Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Fakturaren jaulkipen data	Fakturaren jaulkipen ordua	Mota	Hartzalea (k)	Zerga-oinarria / Zenbaketakoa	BEZ Kuota	Faktura guztira	Zuzendutako zenbatekoa	Ekintzak
Alta	Bai	Aldatua	2023/02/07	10:25:10	F1	FROGAKO BEZEROA	200,00	14,00	214,00	0,00	
ZUZ-M	Ez		2023/02/07	10:25:10	F1	FROGAKO BEZEROA	200,00	14,00	214,00	0,00	

1-etik 2-erako erregistroak erakusten, guztira 2 erregistro

Aurrekoa 1 Hurrengoa

- **ZUZENDU Konponketa** agertzeak esan nahi ZUZENDU Konponketa Zerbitzutik datorrela, eta hori jaso egingo zela harrera baliozkotzeak gainditu ez dituelako atzera bota den fitxategi bat bidali ondoren.

■ AKASTUN FAKTURAK

- "**ERROREAK**" zutabeen "**Bai**" agertuko da jasotako fitxategiek akatsak badituzte eta errorearen kodea "*Erroreen zerrenda*" zutabeen (AH zutabea).
- Fakturen identifikazio datuak bakarrik ageri dira, eta ez ekonomikoak. Itzal gorria dute.



	A	B	C	D	E	F	G	H
1								
2	Ekitaldia	Aldi	Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Faktura m	Seria	Zenbakia
3	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	1
4	2023	1	Alta	EZ		R1S	TB-2023-Z	1
5	2023	1	Alta	EZ		R1S	TB-2023-Z	1
6	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	2
7	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	2
8	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	3
9	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	3
10	2023	1	Alta	BAI		F1	TB-2023-F	4
11	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	5
12	2023	1	Alta	EZ		F1	TB-2023-F	5
13	2023	1	Alta	EZ		R1I	TB-2023-Z	2

- Faktura horien informazio osoa "Akastun fakturen zerrenda" deskargatzean agertuko da (fakturak kontsultatzeko laugarren aukera).
- Akastun faktura bat ZUZENDU Aldaketa fitxategi batek aldatzen duenean eta akatsak edukitzeari uzten dionean, JATORRIA eremua eguneratu egingo da, eta ZUZENDU Aldaketa ageriko da. "ERROREAK" zutabea "Ez" agertuko da. Itzal gorria kenduko zaio, eta datu ekonomikoak agertuko dira.

	A	B	C	D	E	F	G	H
1								
2	Ekitaldia	Aldi	Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Faktura m	Seria	Zenbakia
52	2023	1	Zuzendu M	EZ		R5S	TB-2023-ZS	4
53	2023	1	Zuzendu M	EZ		R5S	TB-2023-ZS	4
54	2023	1	Zuzendu M	EZ		R5S	TB-2023-ZS	4
88	2023	2	Zuzendu M	EZ		F1		111777
89	2023	2	Zuzendu M	EZ		F1		111777

■ BALIOGABETUA/ ZUZENDUA/ ORDEZKATUA

- Faktura bat baliogabetuz gero (BALIOGABETU fitxategi baten bidez), zuzenduz gero (faktura zuzentzaile batekin) edo ordezkatzuz (faktura sinplifikatuak ordezteko igorritako faktura batekin) "Baliogabetua", "Zuzendua" edo "Ordezkatua" hitza agertuko da E zutabea. Bestela, zutabea hutsik geldituko da.

	A	B	C	D	E	F	G	H
1								
2	Ekitaldia	Aldi	Jatorria	Erroreak	Baliogabetua/Zuzendua	Faktura m	Seria	Zenbakia
55	2023	1	Alta	EZ	Baliogabetua	F1	TB-2023-F	9
56	2023	1	Alta	EZ		R1S	TB-2023-Z	8
57	2023	1	Alta	EZ		R1S	TB-2023-Z	8
58	2023	2	Alta	BAI	Zuzendua	F1	2023-F	8
59	2023	1	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	6
60	2023	1	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	6
61	2023	1	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	6
62	2023	2	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	7
63	2023	2	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	7
64	2023	2	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	8
65	2023	2	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	8
66	2023	2	Alta	EZ		R5S	TB-2023-ZS	8
67	2023	1	Alta	EZ		F2	TB-2023-S	7
68	2023	1	Alta	EZ		F2	TB-2023-S	7
69	2023	2	Alta	EZ	Zuzendua	F1	TB-2023-F	10
70	2023	2	Alta	EZ	Zuzendua	F1	TB-2023-F	10



- **Zuzendutako fakturen edo** faktura sinplifikatu baten ordeztu igorritako faktura (F3) batekin **ordezkatutako fakturen** kasuan, zuzendu/ ordeztu dituzten faktura zuzentzaileen edo ordeztekoen identifikazio-datuak bistaratzeko dira (AI, AJ, AK, AL, AM, AN, AO, AP zutabeak):
 - Faktura zuzentzailearen/ ordeztekoaren seriea eta zenbakia
 - Faktura zuzentzailearen/ ordeztekoaren jaulkipen-data
 - Faktura zuzentzailearen/ ordeztekoaren kodea
 - Zuzentzailea desberdintasunengatik (I)
 - Zuzentzailea ordezkapenengatik (S)
 - Faktura sinplifikatuak ordezteko igorritako faktura (F3)
 - Faktura zuzentzailearen mota
 - Zuzentzailearen eta artikuluetan oinarritutako akatsa 80. Bat, Bi eta Sei BEZ (R1)
 - 80. art. Hiru BEZ: lehiaketa (R2)
 - 80. art. Lau BEZ: zor kobrazina (R3)
 - Gainerakoak (R4)
 - Zuzentzaile sinplifikatua (R5)
 - Oinarri zuzendua, kuota zuzendua eta baliokidetasun zuzenduaren errekar-guota, ordezkapenengatik faktura zuzentzaileetan adierazia.

▪ DATU EKONOMIKOAK

- a) Fakturen datu ekonomikoak (zerga oinarria/atxiki gabeko zenbatekoa, BEZaren kuota eta Baliokidetasun Errekarguaren kuota) hiru bloketan multzokatu dira (kolore urdinezko, gorrizko eta grisezko goiburuekin bereziak), BEZaren aitortpena errazago egiteko:

I. Zergaren Araubide Orokorra edo Zergaren Araubide Bereziak beste edozein, honako hauek izan ezik: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako araubide berezia (NAAAB), Baliokidetasun Errekargua (BEAB) eta Sinplifikatua (ASIN).

W	X	Y
Zerga-oinarria / Zenbaketakoa	Jasanarazitako BEZ kuota	Baliokidetasun-errekarguaren kuota

- Bloke honetan jasotzen dira, BEZaren ereduetan, sortutako BEZaren zati likidatiboa eta zati informatiboa betetzeko beharrezkoak diren datuak, "Oinarri eta kuota aldatzea" eta "Baliokidetasun errekar-gua aldatzea" buruzko informazioa adierazten duten laukiak izan ezik, xehetasun honen arabera:
 - 300/ 320/ 330 ereduak (39., 40., 41. eta 42. laukiak izan ezik)
 - 390 ereduak (08., 09., 16. eta 17. laukiak izan ezik)
 - 322 ereduak (42., 43., 44. eta 45. laukiak izan ezik)
 - 393 ereduak (08., 09., 16., 17., 24., eta 25. laukiak izan ezik)



- Zerga oinarriak / lotu gabeko zenbatekoak adierazten dira, baita BEZaren kuotak eta Baliokidetasun Errekarguarenak ere, halakorik bada, eragiketa hauek biltzen dituzten lerroei dagokienez:
 - Zuzentzaileak ez diren fakturretan (F1 eta F2 motakoak direnean) zeinu positiboko eragiketa lotuak eta salbuetsi gabeak (S1)
 - Zeinua edozein dela ere, eta jaulkitako fakturak zuzentzaileak (diferentziengatik eta ordezkapenagatik) izan ala ez (F1, F2), «Baliokidetasun- Errekarguaren Araubide Bereziko eragiketak (BEAB), Araubide Sinplifikatukoak (ASIN) eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Araubide Berezikoak (NAAAB)» izan ezik, honako eragiketa hauek direnean:
 - Lotu gabeak
 - Lotuak eta salbuetsiak
 - Urrutiko salmentei eta barruko ondasun entrega eta zerbitzu prestazio jakin batzuei (OSS) aplikagarri zaizkien araubide berezien eragiketa lotuak eta ez-salbuetsiak (S1)
 - Subjektu pasiboaren inbertsioarekin egindako eragiketa lotuak eta ez-salbuetsiak (S2)
 - Nolanahi ere, ondorengo eragiketak direnean:
 - Ez lotuak VT arrazoiarekin:

II. Oinarriak eta kuotak aldatzea.

Z	AA	AB
Aldatutako Oinarria	Aldatutako BEZa	Aldatutako Errekargua

- Bloke honetan jasotzen dira BEZaren erduetako "Oinarri eta kuotak aldatzea" eta "Baliokidetasun erreargua aldatzea" laukiei dagozkien datuak, hau da:
 - 300/ 320/ 330 erduak: 39., 40., 41. eta 42. laukiak
 - 390 erdua: 08., 09., 16. eta 17. laukiak
 - 322 erdua: 42., 43., 44. eta 45. laukiak
 - 393 erdua: 08., 09., 16., 17., 24., eta 25. laukiak
- Zerga oinarriak, BEZaren kuotak eta, egonez gero, baliokidetasun errearguarenak adierazten dira, lerro hauei dagokienez:
 - Faktura zuzentzaileetako (RI eta RS) eragiketa lotuak eta ez-salbuetsiak (S1) biltzen dituzten lerroak, zeinua edozein dela ere, OSS sistemari atxikitako eragiketei



buruzkoak eta AC zutabeen S marka duten banakatzeei buruzkoak **izan ezik**.

- Zuzentzaileak ez diren fakturretan (F1 eta F2 ez direnetan) zeinu negatiboa duten eragiketa lotuak eta ez-salbuetsiak (S1) biltzen dituzten lerroak, OSS sistemari atxikitako eragiketei daudenak eta AC zutabeen S marka duten banakatzeei buruzkoak izan ezik.
- Ordezko faktura zuzentzaileen bidez (S0) zuzendutako oinarrien, kuoten eta errekareru kuoten lerroak, **salbu** eta "*Baliokidetasun- Errekarguaren Araubide Bereziko eragiketak (BEAB), Araubide Sinplifikatukoak (ASIN) eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Araubide Berezikoak (NAAAB)*".

III. Baliokidetasun Errekarguaren Araubide Berezia (BEAB), Araubide Sinplifikatua (ASIN) eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Araubide Berezia (NAAAB) aplikatuta egindako eragiketak.

AD	AE	AF
Sortutako Oinarria BE/ ES/ NAAAB	Sortutako BEZa BE/ES/ NAAAB	Sortutako Errekargua BE/ ES/ NAAAB

Honako hauek adierazten dira:

- Baliokidetasun Errekarguaren Araubide Berezian, Araubide Sinplifikatuan eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Araubide Berezian egindako eragiketei dagozkien lerroak, faktura mota edozein dela ere, salbuetsitako edo lotu gabeko eragiketak (RL, IE), Araubide Orokorrean egindako eragiketekin **batera** Baliokidetasun- Errekarguaren Araubide Berezian (BEAB), Araubide Sinplifikatuan (ASIN) edo Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Araubide Berezian (NAAAB) egindakoak direnean **izan ezik**.
 - Ordezko faktura zuzentzaileen bidez (S0) zuzendutako oinarriak eta kuotak, betiere baldin eta eragiketak Baliokidetasun Errekarguaren Araubide Berezian (BEAB), Araubide Sinplifikatuan (ASIN) edo Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Araubide Berezian (NAAAB) **bakarrik** egin badira edo Baliokidetasun Errekarguaren Araubide Berezian (BEAB) edo Araubide Sinplifikatuan (ASIN) egindako eragiketak badira, Araubide Orokorrean egindako eragiketekin **batera**.
- b) **Ez dira agertuko** hauen datu ekonomikoak:
- Faktura sinplifikatuak ordezteko igorritako fakturak (F3)
 - Faktura baliogabetuak
 - Akastun faktura (itzal gorritz agertzen dira *ekitaldiari, zergaldiari, jatorriari, egoerari, akatsei, faktura motari eta fakturaren identifikazioari* dagozkion datuak)



3.3. “ERROREDUN FAKTUREN ZERRENDA” DESKARGATZEA

Sortutako fitxategian kontsulta egin denean dauden akastun fakturen informazio guztia jasotzen da, honela bereizita:

- Akatsak zituzten fakturak, haiekin hau egin denean:
 - o Baliogabetu
 - o Faktura zuzentzaile baten bidez zuzendu

- Akatsak dituzten fakturak, oraindik zergadunak horiekin ekintzarik egin ez duenean (*Puntu horretan, fitxategi honen garrantziari buruzko bi alderdi nabarmendu behar dira, sarreran aipatutakoak*):
 - o *Dagokion ekintza egiteko helburuarekin (ZUZENDU Aldaketa fitxategi bat bidaliz edo Ordezteko Faktura Zuzentzaile bat eginez, **Xml-ren informazioan**, zuzendutako oinarria eta kuotak zerora adieraziz, fakturaren dokumentuan oinarria eta zuzendutako kuotak adierazi behar badira ere).*
 - o **Zergadunaren erantzukizuna da igorritako fakturetan jasanarazitako kuotak behar bezala aitortzea, “.xml” fitxategia atzera bota bada edo akatsak baditu ere.**

Fitxategiak “BEZarako zerrenda”ren egitura bera du (II. eranskina), eta fakturaren datu guztiak erakusten dira, datu ekonomikoak barne.

4. ERANSKINAK

I ERANSKINA: LABURPEN ZERRENDA

ZUTABEAK	DATA		
A	JATORRIA	Alta Zuzendu Aldatu Zuzendu konpondu	
B	ERROREAK	Bai	Baliozkotze akatsak ditu
		Ez	Ez du baliozkotze akatsik
C	BALIOGABETUA/ ZUZENDUA/ ORDEZKATUA	Baliogabetua	Baliogabetze fitxategi batek baliogabetutako faktura
		Zuzendua	Faktura zuzentzaile batek zuzendutako faktura
		Ordezkatua	Faktura sinplifikatuaren ordeztu gogorritako faktura (F3) batekin ordeztu den faktura
D	FAKTURA MOTA	F1	Faktura osoa
		F2	Faktura sinplifikatua
		F3	Faktura sinplifikatuak ordezteko igorritako fakturak
		R1S	Ordezteko faktura zuzentzailea. Zuzenbideko akatsa eta BEZLaren 80.Bat, Bi eta Sei artikulua
		R1I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. Zuzenbideko akatsa eta BEZLaren 80.Bat, Bi eta Sei artikulua
		R2S	Ordezteko faktura zuzentzailea. BEZLaren 80.Hiru artikulua: konkurtsoa
		R2I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. BEZLaren 80.Hiru artikulua: konkurtsoa
		R3S	Ordezteko faktura zuzentzailea. BEZLaren 8.Lau artikulua: zor kobraezina
		R3I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. BEZLaren 8.Lau artikulua: zor kobraezina
		R4S	Ordezteko faktura zuzentzailea. Gainerakoa.
		R4I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. Gainerakoa.
		R5S	Ordezteko faktura zuzentzaile sinplifikatua
R5I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzaile sinplifikatua		
E- F	FAKTURAREN IDENTIFIKAZIOA	Seriea-Zenbakia	
G	JAULKIPEN DATA	Fakturaren igortze edo jaulkitze data	
H	JAULKIPEN ORDUA	Fakturaren jaulkitze edo igortze ordua	
I	ERAGIKETA DATA	Eragiketa egin zen eguna.	Jakinarazten ez bada jaulkitze dataren berbera delako, horrekin betetzen da.
J-K	HARTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA	Hartzaile(ar)en IFZ Hartzaile(ar)en izendapen soziala	
L	FAKTURA GUZTIRA	Fakturaren guztizko zenbatekoa	
M	ZERGA OINARRIA/ ZENBATEKOA	Batura, zerga oinarriena, atxiki gabeko zenbatekoena, zerga oinarri salbuetsiena eta subjektu pasiboa alderantzikatuta duten zerga oinarriena, fakturen xehakapenetan jasotakoena.	
N	BEZ KUOTA	Fakturan jasotako BEZ kuoten batura.	
O	BE KUOTA	Fakturan jasotako Baliokidetasun Errekarguaren kuoten batura.	
P	ZUZENDUTAKO ZENBATEKOA	Oinarri zuzenduaren eta kuota zuzenduen batura, ordezteko faktura zuzentzaileetan jasotakoena.	
Q	JASANDAKO ATXIKIPENA		
R	ERRORE KODEAK	Fitxategiek dituzten TicketBAI erroreen kodeak	
S	KONTAKETA	Bai/ Ez	
T	SARRERA DATA ETA ORDUA		
U	BIDALKETA		
V	SINADURA		
W	SOFTWARE		
X	ERRORE- KODEAK	TicketBAI fitxategietako akatsei eta oharrei dagozkien kodeak	

II. ERANSKINA: BEZARAKO ZERRENDA

ZUTABEAK	DATA			
A	EKITALDIA	ERAGIKETA DATA ri dagozkion likidazio ekitaldia eta zergaldia adieraziko da.		
B	ALDIA	Salbuespenak, zeintzuei JAUUKITZE DATARI dagozkion likidazio ekitaldia eta zergaldia adieraziko zaizkien. - R1, R2, R3, R5 - F1, F2 < 0		
C	JATORRIA	Alta Zuzendu Aldatu Zuzendu konpondu		
D	ERROREAK	Bai	Baliozkotze akatsak ditu	
		Ez	Ez du baliozkotze akatsik	
E	BALIOGABETUA/ ZUZENDUA/ ORDEZKATUA	Baliogabetua	Baliogabetze fitxategi batek baliogabetutako faktura	
		Zuzendua	Faktura zuzentzaile (Rx) batek zuzendutako faktura	
		Ordezkatua	Faktura sinplifikatuaren ordeztu igorritako faktura (F3) batekin ordeztu den faktura	
F	FAKTURA MOTA	F1	Faktura osoa	
		F2	Faktura sinplifikatua	
		F3	Faktura sinplifikatuak ordezteko igorritako fakturak	
		R1S	Ordezteko faktura zuzentzailea. Zuzenbideko akatsa eta BEZLaren 80.Bat, Bi eta Sei artikulua	
		R1I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. Zuzenbideko akatsa eta BEZLaren 80.Bat, Bi eta Sei artikulua	
		R2S	Ordezteko faktura zuzentzailea. BEZLaren 80.Hiru artikulua: konkurtsoa	
		R2I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. BEZLaren 80.Hiru artikulua: konkurtsoa	
		R3S	Ordezteko faktura zuzentzailea. BEZLaren 8.Lau artikulua: zor kobraezina	
		R3I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. BEZLaren 8.Lau artikulua: zor kobraezina	
		R4S	Ordezteko faktura zuzentzailea. Gainerakoa.	
		R4I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzailea. Gainerakoa.	
		R5S	Ordezteko faktura zuzentzaile sinplifikatua	
R5I	Ezberdintasunagatiko faktura zuzentzaile sinplifikatua			
G	FAKTURAREN IDENTIFIKAZIOA	Seriea		
H	IDENTIFIKAZIOA	Zenbakia		
I	JAUUKIEN DATA	Fakturaren iqortze edo jaulkitze data		
J	ERAGIKETA DATA	Eragiketa egin zen eguna.	Jakinazten ez bada jaulkitze dataren berbera delako, horrekin betetzen da.	
K	HARTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA	Identifikazio mota	01	IFZ
			02	IFZ - BEZ
			03	Pasaportea
			04	Identifikazio dokumentu ofiziala
			05	Bizitoki ziurtagiria
			06	Beste frogak dokumentu bat
L		Herrialde kodea		
M		IFZ/Identifikazio kodea		
N		Izena		



O	ERAGIKETA MOTA Xehakapen mota eta xehetasunak (atxikia eta salbuetsi gabea, atxikia eta salbuetsia eta atxiki gabea)	S0	Zuzendutako oinarria, kuota eta errekareru kuota ⁵
		S1	Atxikia eta salbuetsi gabea, SPI gabea
		S2	Atxikia eta salbuetsi gabea, SPIduna
		E1	Atxikia eta salbuetsia, 20. art.
		E2	Atxikia eta salbuetsia, 21. art.
		E3	Atxikia eta salbuetsia, 22. art.
		E4	Atxikia eta salbuetsia, 23. eta 24. art.
		E5	Atxikia eta salbuetsia, 25. art.
		E6	Atxikia eta salbuetsia, bestelako kausak
		OT	Atxiki gabea, 7. artikulua eta beste batzuk
		RL	Atxiki gabea, lokalizazio arauak tarteko
		VT	Lotu gabea, hirugarrenen kontura egindako salmentak (zenbatekoa ez da konputagarria BEZaren eta PFEZaren ondorioetarako).
		IE	Zergaren aplikazio lurraldean lotu gabea, lokalizazio erregelengatik, baina EBko beste estatu batean atzerriko zerga, PZIZ/KZO edo BEZa jasanaraziz
		P, Q, R	BEZ GAKOAK (1, 2, 3) BEZ araubideko gakoak eta zerga garrantziko eragiketak
02	Esportazioa		
03	Erabilitako ondasunen, arte objektuen, zaharinen eta bilduma objektuen araubide berezia		
04	Inbertsiorako errearen araubide berezia		
05	Bidaia agentzien araubide berezia		
06	Entitate taldeen araubide berezia (maila aurreratua)		
07	Kutxa irizpidearen araubide berezia		
08	EZIZ/KZZOari lotutako eragiketak		
09	Besteren izenean eta kontura ari diren bidaia agentziek egindako prestazioak		
10	Hirugarrenen konturako kobrantzak, ordainsari profesionalenak edo jabetza industrialetik, egile-jabetzatik edo bestelakoetatik eratorritako eskubideenak		
11	Negozio lokala errentatzeko eragiketak, atxikipenari lotuak		
12	Negozio lokala errentatzeko eragiketak, atxikipenari lotu gabeak		
13	Negozio lokala errentatzeko eragiketak, atxikipenari lotuak eta lotu gabeak		
14	Hartzailea administrazio publiko bat denean ordaintzeke dauden BEZdun fakturak, obra ziurtagirietakoak		
15	Segidako traktuko eragiketetan ordaintzeke dagoen BEZdun faktura		
17	OSS eta IOSS araubideetakoren bati atxikitako eragiketa		
19	Nekazaritzako, Abeltzaintzako eta Arrantzako araubide bereziko eragiketa (AAB)		
51	Baliokidetasun errekareruaren araubide bereziko eragiketa (BEAB)		
52	Araubide berezi sinplifikatuko eragiketa (ASIN)		
53	BEZaren ondorioetarako enpresaburu edo profesionaltzat jotzen ez diren pertsona edo erakundeek egindako eragiketak		
54	Kanarietan, Ceutan eta Melillan kokatutako establezimendu iraunkorretatik egindako eragiketak.		
S	ERAGIKETAREN XEHAKAPENA	Ondasun ematea Zerbitzu ematea	
T	FAKTURAREN GUZTIZKOA	Fakturaren guztizko zenbatekoa. Fakturak hainbat lerro baditu, azkenengoan ageri da.	
U	BEZ MOTA	21%, 10%, 7,5%, 5%, 4%, 2%, 0%	
V	BALIOKIDETASUN ERREKARGU MOTA	5,20%, 1,75%, 1,40%, 1%, 0,62%, 0,50%, 0,26%, 0%	

⁵ BEZaren aitortpenak egiteko datuak errazago iragazteko, beste S0 balio bat sortuko da "O: Kausa" zutabearen, lerro guztiek balio bat izan dezaten zutabe horretan.



W, X, Y	BEZ OROKORREKO ERAGIKETAK	Zerga oinarria BEZ kuota BE kuota	<p>*Faktura osoen eta sinplifikatuen banakapen positiboak (S1);</p> <p>*Edozein motatako fakturak edozein zeinua duten banakapenak, <u>salbu</u> BEAB, ASIN edo NAAAB blokeari dagozkionak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Lotuak, subjektu pasiboaren inbertsioa dutenak (S2) -Lotuak eta salbuetsiak -Ez lotuak -OSSera bilduak <p>*VT- ri eutsi ez izanaren arrazoiarekin banakapenak, betiere</p>	
Z, AA, AB	OINARRIAK ETA KUOTAK ALDATZEA	Oinarri aldatua BEZ aldatua BE aldatua	<p>*Faktura osoen eta sinplifikatuen banakapen ez salbuetsiak (S1) negatiboak eta faktura zuzentzaileen S1 motako banakapenak, <u>salbu eta</u>:</p> <ul style="list-style-type: none"> - AC zutabearen (BEAB edo ASIN) S marka duten banakapenak - OSS- ra bildutako banakapenak <p>*Ordezko faktura zuzentzaileen bidez (S0) zuzendutako oinarriak eta kuotak, <u>salbu eta</u> BEAB, ASIN edo NAAAB blokeari dagozkionak</p>	
AC, AD, AE, AF	BALIOKIDETASUN ERREKARGUAREN ARAUBIDE BEREZIA (BEAB)	AC (zut.)	BEAB/ ASINeko eragiketak= S	Baliokidetasun errekgarguko araubidean edo araubide sinplifikatuan jaulkitako faktura bat dela zehazteko marka
	ARAUBIDE SINPLIFIKATUA (ASIN) NEKAZARITZA, ABELTZAINZTA ETA ARRANTZA ARAUBIDE BEREZIA (NAAAB)	AD, AE, AF (zut.)	Zerga oinarria BEZ kuota BE kuota	<p>*Faktura osoak, faktura sinplifikatuak eta faktura zuzentzaileak salbuetsitako edo lotu gabeko eragiketak (RL, IE) BEAB/ ASIN/ NAAAB erregimenetan eta Erregimen Orokorrean egindako eragiketekin batera direnean <u>izan ezik</u></p> <p>*Ordezkapenagatiko faktura zuzentzaileen (S0) oinarriak eta kuota zuzenduak, BEAB/ ASIN/ NAAABen <u>bakarrik</u> egindakoak edo BEAB/ ASINen egindakoak eta Araubide Orokorrekin <u>batera</u> egindako eragiketak direnean</p>
AG	ZUZENDUA/ ORDEZKATUA	Zuzendutako/ ordezkaturako fakturen identifikazioa (seriea eta zenbakia) eta jaulkitze- data		
AH	ERROREEN ZERRENDA	Errore kodeak	Fitxategiek dituzten TicketBAI erroreen kodeak	
AI	ZUZENDU/ ORDEZKATU DUEN ZUZENTZAILA/ ORDEZKO FAKTUREN DATUAK	Zuzentzailearen/ Faktura sinplifikatuak ordezteko fakturaren seriea		
AJ		Zuzentzailearen/ Faktura sinplifikatuak ordezteko fakturaren zenbakia		
AK		Zuzentzailearen/ Faktura sinplifikatuak ordezteko fakturaren igorpen data		
AL		Zuzentzailearen/ Faktura sinplifikatuak ordezteko fakturaren kodea		
AM		Zuzentzailearen mota		
AN		Zuzenduriko oinarria	Ordezko faktura zuzentzaileen zuzenketaren zenbatekoa	
AO		Zuzenduriko kuota		
AP		Zuzenduriko errekgargu kuota		